

Kultura:
anitz eta
ezberdin

Plater dastaketa
egin zuten atzo ▶ 7



Esteban Nietoren heriotza «sakabanaketak eragina» dela salatu du Etxerat-ek

ERRUA ▶ «Espetxe politikak» du;
1985ean «anaia ikustera joan eta
istripua izan zuenetik ez da osatu»

AGURRA ▶ Dolu eguna zela zioen
Etxerat-ek atzokoa; gaur zabalduko
dituzte Leo Estebanen errautsak ▶ 5



Tanatorio atarian, atzo. D. GIBELALDE

ENRIKE LAHIDALGA ▶
BEHAR-ZANA ELKARTEA



GARAZI AZKUE


«Bestelakoak
badiren arren
errebotea da
gure ikurrina»

Behar-Zana elkarteko
lehendakariak pilota
izan du mintzagai ▶ 2

TOLOSA ▶

**Aparkaleku
huts gehiago
daude orain
erdialdean**

TAO ezarri zutenetik
trafikoa «arindu egin
da nabarmen» ▶ 4



**Eguraldiak lagunduta hasi
dira jaiak: alternatibo zein
ofizial, jendetza elkartu da**

ANOETA ▶ Atzo eman zieten anoetarrek herriko jaiiei hasiera.
Eguraldia lagun izan zuten egun osoan; ofizial nahiz alternatibo,
jendetza elkartu zen herrian. Alternatiboetan sega apustuak era-
karri zuten jende gehien —argazkian, goian—, eta Garmendia eta
Urkola nagusitu ziren besteen aldean. Ofizialetan, pilotaz eta txi-
rindularitzaz gozatzeo aukera izan zuten herritarrek eta herriko
artisten erakusketa ere izan zen ikusgai —argazkian, behean—.
Gaur ere ekitaldi ugari izango da egun osoan. DANI GIBELALDE ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

**‘Hitza’-ri buruz jardun
dute MIDASen batzar
nagusiaren baitan**

Donostian, Kursaaen ari dira egiten ▶ 3

**DIODO LASER BIDEZKO DEPILAZIOA
(LightSheer)**

ERAGINKORRA ETA ZIURRA

- Emakumezko zein gizonezkoentzat aproposa
- Tratamendu pertsonalizatua
- Lehen azterketa inongo konpromisorik gabe
- Deitu eta hartu ordua **ekainaren 11rako**

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

Tratamendu eraginkorra
emaitzak nabari dira



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdetzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak

- Eraikuntza ezberdinak
- Hilerrien apainketa
- Hilerriak
- Panteoak
- Hilerriak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa Klara, 1 behe - 20400 TOLOSA

Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es



**UZTURRETIK
AMAIA AGIRRE**

Greban
greban
greban

Ez dut eraikuntza lanetan aritzen den lagunik. Nire familiako inor ere ez da hilabetearen amaieran ohiko diru sarrerarik gabe geratuko. Ez behintzat greban dagoelako. Ohikoak ez diren gastuak sortuko zaizkigu gehienez ere. Azken batean horrek egiten du hilabete bukaera ohikoa, betikoa, gogorra. Baina niri ere eragin dit hain luze doan greba honek. Etxe baten zain egon beharra, arrazoiak arrazoi, luze egiten da, baina bankuen presioa ez da hobea. Bankuek ere euren interesen arabera jokatzeko dute, eta guk eurek kobratzen dizkiguten interesen arabera. Haiek oldartu, gu koldartu. Hilabetearen itxarongo omen dute, baina behin batek esan zuen moduan denborak urrea bali du, eta hurrengo hilabetearen aurrekoak eta datozenak ere kobratuko zaizkigu.

Azken asteotan ez da paretarik altxa, jaso. Horregatik askok ezin dute bururik jaso, altxa. Murru bat eraiki da, ordea, negoziatzen eta eztabaidatzen ari diren bi aldeen artean. Hitzek eusten duten eraikuntza nekez amilduko dela esango nuke, baina hor ere ezin ados jarri. Harresia non jarri ezin erabaki, batak bestearen lurtean sartu eta bereganatu egin nahi.

Lan baldintza egokien goseak ase ezina ekarri du hainbat etxetara. Ezin besteen etxerik eraiki eta norberarena koloka. Ez dakit zer gizarte klase eraiki dugun. Klaseak eta klaseak dauden gizarte, agian.

Bihar omen dira langile autonomoak lanean hasitekoak. Nekez izango dute, alabaina, lanerako autonomia eta askatasun osoa. Piketeak nonahi eta pikatxoak hor nahi. Ez da egoera samurra. Txirrita zena ere igeltseroa omen zen, eta hari gustura esango nioke belarri ertzera egunotan gertatzen ari dena: lan egin nahi eta ezin.

ENRIKE LAHIDALGA ▶ BEHAR-ZANA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Pilota, gutxienez, esku pilota, oso sasoi onean dago»

Behar-Zana elkarteak 58 urte bete ditu aurten eta asteburu guztiko festa antolatu dute. Enrike Lahidalga da kirol elkartearen lehendakaria

GARAZI AZKUE

Behar-Zana elkartearen festa giroan murgildu da asteburu honetan; 58 urte dira Villabonako kirol elkartearen sortzailea pilotariaren inguruan. Enrike Lahidalga billabonatarra da, egun, elkartearen lehendakaria.

Nola sortu zen Behar-Zana elkartearen?

Pilotaren inguruan sortu zen elkartearen pilotariak sortu zuten. Pilota babesteko eratu zuten elkartearen, errebotearen jokoaren gehienbat. Errebotearen pilota

joko maisua dela diote, eta horietan sortu direla beste pilota joko guztiak. Baina zaila da aurrrera eramatea, Hego Euskal Herrian Zubietan eta Villabonako inguruan. Enrike Lahidalga daudela beste pilotariak. Iparraldean ere bai. Pilotaren inguruan eskuzkoak du arrakasta eta dirua.

Elkartearen bizitzaren hasieratik hona egongo ziren aldaketak...

Hasiere errebotearen inguruan izan zen, zesta puntan ere bai.

Azken 15 urteetan joan da zabaldu elkartearen. Errebotearen gain, esku pilota, pala, xare, joko garbi eta zesta punta taldeak ere sortu dira. Pilotariaren afizioa sortzeko sartu ziren beste taldeak; hala ere, gure ikurrina errebotea da.

Kirol handiak eta kirol txikiak al daude?

Esan daiteke baietz. Telebistaren daudenak eta ez daudenak bananduko nituzke, futbola edo saskibaloia, esaterako.

Telebistak markatzen al du hori?

Nik uste dut baietz. Telebistak dirua ordaintzen du. Futbolaren aurrekontuaren zati handi bat telebistak ematen duena da, baita publikitate ere.

Errealak duen aurrekontua izango balu Behar-Zana elkartearen?

Hori ametsa da. Gauza asko egingo genituzke. Elkartearen lanean dabilzan irakasleei eta monitoreei ordaintzeko dirua izango genuke. Egia esan, asko lagunduko luke.

Batzuk pilota desagertzearen dagoela diote.

Pilota, gutxienez, esku pilota, oso sasoi onean dago. Besteak nahiko galduta dabilta. Erreboteak, esaterako, gainbehera izugarria izan du. Lehen, Iruñeko Jai-Alaien astean sei partida eskaintzen zituzten, eta orain hiru egoten dira. Frontoiak apustuek betetzen zituzten, orain jendea konturatu da apustuaren dirua botatzea dela. Gainera, konpetentziarik ez badago ez du erakartzen; txapelketak badaude agertzen da jendea frontoira. Beste kirolak ere hori gertatzen da.

Nola iragartzen duzu elkartearen etorkizuna?

Orain aldaketa handi bat izango dugu aurrera begira. Salvadora enpresa kenduko dute eta elkarteak ere beste egoitza bat izango du.

PERTSONALKI ▶

▶ 1941eko azaroaren 8an jaioa ▶ Zaletasunen artean aipatu ditu irakurtzea, mendian ibiltzea eta jendearen erakustea zein diren gure herriaren sustraiak ▶ Euskadiko Kutxako langilea da.

Kirol bat? Futbola; nahiz eta elkartearen naogen. **Kirolari bat?** Miguel Indurain. **Futbolari bat?** Satrustegi. **Pilotari bat?** Aimar Olaizola.



ERREBOTEA

«Elkartearen bestelako pilota taldeak dauden arren: pala edota eskuzkoa, gure ikurrina errebotea da»



KOMUNIKABIDEAK ▶

ZER IRUDITZEN ZAIZU 'HITZA'? ▶

TONI EBNER
DOLOMITEM (HEGO TIROL)

«Ondo legoke besteek adibidea jarraitzea»



«Presio handia dago Espainiaren aldetik eta ideia onak bururatzeko zaizkizue euskaldunei. Ondo legoke Europako beste hizkuntza gutxituek adibidea jarraitzea».

CHARO BARBA
HOXE (GALIZIA)

«Oso proiektu interesgarria da»



«Oso interesgarria da. Hala ere, galizieraz gure egunkaria bakarrik argitaratzen da eta 5.000 aleko tirada besterik ez du; beraz, tokian tokiko bat kaleratzea...».

BOJAN BREZIGAR
PRIMORSKI DNEVNIK (ESLOVENIA)

«Egunkari arin eta herrikoiak behar dira»



«Oso interesgarria iruditzen zait. Hizkuntza gutxituetan egunkaria irakurtzera ohitu dadin, jendeari egunkari arin eta herrikoiak eskaini behar zaizkio».

EDITA SLEZAKOVA
ÚJ SZÓ (ESLOVAKIA)

«Ona da hizkuntzak ez galtzeko»



«Hizkuntza gutxituen aldeko edozein proiektu ona da, hizkuntzak ez galtzeko, eta, kultura eta nortasunari eusteko. Proiektua webgunean jartzeko proposamena luzatu dut».

MAGDALENA AMONN
SUOTIROL (HEGO TIROL)

«Marketing operazio interesgarria da»



«Ideia ona da. Ez da hizkuntza gutxituen aldeko egitasmoa bakarrik, marketing operazio interesgarria da; HITZArekin *Berriarako* irakurle-erperla jakin daiteke».

'HITZA' adibide

Joanmari Larrartek HITZAREN proiektua azaldu zuen atzo Donostiako Kurasaalean, MIDASen 3. batzar nagusiaren barruan

JON MARTIN

Kurasaalak Babeleko dorrearen ibidia gutxi sentitzen du azken egunetan. Izan ere, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan Argitaratzen diren Egunkariaren Europako elkarteak -MIDAS- antolatutako duen bere 3. batzar nagusian, hizkuntza gutxituak dituzten hainbat herrialdeetako ordezkariak bildu dira.

Atzo, EKTko idazkari den Joanmari Larrartek HITZAREN proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen bildutakoel. Larrartek azaldu zuenez, *Berriaren* erronka nagusiak bi dira: «kioskoetako aukera zabaltzea bata, eta euskarazko hedabideen zabalkundea sustatzea, bestea». Izan ere, berak adierazi bezala, «gutxi dira kioskoetan topa litezkeen euskarazko produktuak, eta daudenak tirada txikiak dira». Horregatik, beharrezkotzat jo zuen hedabideen zabalkundea; modu horretara, proiektu bideragarriagoak izango baitira, instituzioen laguntza gutxiago behar baitute eta publizitate alorrean ere aurrerapausu bat izango bailirateke. Horrek, aldi berean, «proiektu berriei abiatzeko kementa emango lieke eta horrek kioskoetako aukera handitzea ekar dezake». HITZA testuinguru horretan sortu zela adierazi zuen Larrartek. Helburua «jendeak euskarazko informazioa beharrezkotzat jotzea» dela esan zuen.

Gaur egun lau proiektu ditu HITZAK; zortzi orrialdeko egunkariak dira denak. Urtea amaitu baino lehen beste bi proiektu abiatzekotan direla jakinarazi zuen; haietako bat Donostian. Gaur egun 25.000 aleko ti-



Joanmari Larrarte, gainontzeko mahaikideekin batera. JON MARTIN



Ikusmin handia sortu zuen HITZAREN proiektuak. JON MARTIN

Arduradunak «oso pozik»

Herenegun hasi eta atzo bukatu ziren MIDAS elkartearen batzarreko hitzaldiak, eta antolatzaileak «oso pozik» geratu dira. Ostiralgoizean batik bat euskararen egoeraz aritu ziren: *Egunkariaren* itxieraz, hizkuntza esku-bideez, hainbat datu soziolinguistikoz... Atzo, berriz, Europako beste egunkariaren kasuak-eta aipatu zituzten: irlandezko eta galesezko egunkari proiektuak, hizkuntza gutxituetako egunkariak eta euren sare-lana, Europaren zabaltzea eta bere eragina hizkuntza gutxituetako egunkarietan, Kataluniako adibideak... 30 egunkaririk gora biltzen ditu MIDASEk —atzo bertan bost sartu ziren—. Alemania, Finlandia, Katalunia, Galizia, Euskal Herria, Italia, Suitza, Irlanda, Hego Tirol, Kroazia, Estonia, Eslovakia, Danimarkakoak... dira. ◀

rada du HITZAK eta «urte amaierarako 50.000ra hurbiltzea espero» duela esan zuen Larrartek.

Besteen iritzia

Larrarteren azalpenaren ondoren, beste herrialdeetako ordezkariak HITZAREN proiektuaren inguruan zuten iritzia eskaini zuten. Kataluniarrek esan zuten tokian tokiko hedabideekin hasi aurretik beraiek ere egunkari nazionala bazutela eta egunkari bakoitzari funtzio bat betetzea dagokiola.

Danimarkarrek, aldiz, egunkari handiek tokian tokiko informazioa oso azaletik jorratzen dutela adierazi zuten, eta horregatik, hizkuntza gutxituetako egunkariak justu arlo hori lantzea aukera ona litzatekeela adierazi zuten.

HIRIGINTZA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Lau hilabete i garo dira Tolosan aparkalekuen arautze sistema berria zabaldu zenetik; hau da, TAO (Trafikoa Arautzeko Ordinantza) ia herri guztira hedatu zenetik. Lehenengo hiru hilabeteetan arautze honek izan dituen ondorioak aztertzen egon eta gero, Udaltzaingoa, Joselu Andueza Tolosako Udaleko Ingurumen zinegotziak eta Antton Lekuona teknikariak balorazioa egin dute aste honetan. Ostegunean egin zuten prentsa aurrean agerraldia gain horren berri emateko.

Erabaki hau, hainbat arrazoiren ondorioz hartu zen: batetik, trafiko handia sortzen zen, herrian, alde batetik bestera ibiltzeko autoa hartzeko ohitura handia zegoelako. Bestetik, autoa aparkatzeko leku arazoak izaten ziren eta honen ondorioz gaizki aparkatzen ziren autoak, zamalanetarako erreserbatuak diren lekuetan utziz edo bideak oztopatuz.

Herrian zehar ibiltzen den autobus berriak asko lagundu du; herritarrek alde batetik bestera autobusez joan daitezke, eta beste herrietatik datozenek, berriz, herriaren kanpoaldean aparkatu dezakete autoa eta autobusa erabili erdigunera joateko.

TAO hedatu izanak ondorio onak izan dituela eta hasierako helburuak bete dituela azpimarratu dute, onura hauek ekarri bestea beste: jende gehiago gerturatzen da orain Tolosara bai erosketak egitera bai bestelako eginbeharrak burutzera. Honek trafikoa han-



Aparkaleku mugatua dagoen orduetan lekua soberan egoten da TAO ezarrita dagoen guneean. I. TERRADILLOS

Aparkatzeko leku gehiago orain

Aparkaleku libre gehiago eta trafiko arinagoa dago Tolosan TAO ezarri zutenetik, eta «arau-hauste gutxiago egiten dira»

ditzea ekarriko lukeela pentsa daiteke, baina herriaren erdialdean nabarmen arindu da ibilgailuen joan-etorria.

TAO dagoen orduetan, berriz, aparkaleku libre gehiago nabari da, gutxi gorabehera ordu horietan 500 autorentzat lekua izaten delarik zonalde desberdinetan, bai bertakoentzat eta baita beste herrietatik datozenentzat ere.

Aparkatzeko leku gehiago egotearekin jendeak arau-hauste gutxiago egitea lortu dela ere adierazi dute; ez dira aurkitzen, lehen bezainbeste, gaizki aparkatutako autoak, ez eta zamalanetarako diren lekuetan ere. Gainera, orain aparkatzea errazagoa denez, jendeak ez du bueltaka leku bila ibili beharrik eta ondorioz trafikoa arinagoa da orain Tolosan. Hala eta guztiz ere, hobetu daitezkeen zonaldeak ere badaudela aipatu dute, eta aztertzen ari diren guneen artean Araba etorbidea, San Esteban auzoa eta Berazubi auzoa daude.

Aurrerago burutuko diren proiektuen berri ere eman zuten Tolosako Udaletxean ostegun iluntzean eman zuten prentsaurrekoan: herritarrentzat diren aparkalekuen eraikitze plana zehaztu behar da. Bestalde, autoentzako bideetan moldaketak egingo dira; besteak beste, biala bi norabideetan jartzeko asmoa dago. Leku publikoen kalitatea hobetu nahi da oinezkoen bideekin batera eta bidegorriak eratzeko asmoa ere azaldu dute. Irailtik aurrera hasiko omen dira lanean proiektu berri horretan.



10 bidaiak zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:  Viajes Eroski

Euskaldunok behar dugun **berria**

GUTUN@K 

Baserritarrok ere bizi nahi dugu!

Anoetako baserritar, nekazari eta abeltzainok bizi dugun egoera ez da batere ona. Alde guztietatik zapaltzen gaituzte; gure produktuak uskeria bat ordainduz, beharrezko dugun tresneriaren kostua handituz, gure lurrrak uskeria bat ordainduta lapurtuaz...

Ekonomiaren globalizazioa munduko laborari guztiak gu bezala bortizki jipoitzen ari da, eta zorritzarez argi gorria aspaldi piztuta daukagu. Horrela, lehia-kortasunaren eta modernotasu-

naren izenean, milaka urte dituen gure Euskal Herria, Euskal Hiri bihurtzen ari dira: gure nortasuna, gure herri izaera kapital espekulatiboaren irabazien eta lukurreoren menpe jarriko duen nortasunik gabeko megapolis neoliberal handi bat sortuz.

Azpiegituren jarraipen zentzugabearen ondorioz ematen ari den paisaiaren aldaketaren atzean, aldaketa sakonago bat bilatzen ari da, gure ohituren, kulturaren, kontsumo eta elikadura eraren, gizarte ereduaren aldaketa. Enpresa pribatuaren interesen pean egongo ez den lurrraren Anoeta eta Euskal Herri bat behar dugu. Horregatik, sis-

tematikoki gure lurrrak okupatzeko dituzten industrialde, etxebizitza, merkatal gune, errepede, Abiadura Handiko Tren eta abar luze hori gelditzea exijitzen dugu. Gurutzebidean aurkitzen den gure sektore honen interesak zapalduko ez dituen lurralde antolaketa bat luze gabe behar dugu baserritarrok ere bizi nahi baitugu. Gizarteari galde dieziotela euskal instituzio publikoek ea elikagai subirautea gutxieneko bat eduki nahi duten, bazterrak, ingurunea, lurra, ibaiak... txukun, garbi, osasuntsu mantentzea nahi duten edota nekazaritza bizia eta herri txikien bizirautea lortuko duena nahi duten.

Guk, Agerre, Argindegia aurrekoa, Argindegia atzeko, Arkaitzeta, Ateaga-Etxeberri, Barrundi, Bideondo, Etxeberri, San Juan, Sarobe goikoa, Sarobe behekoa eta Urrutiñe Anoetako baserritarrok, hori nahi dugu behintzat, eta horregatik, gainean dugun Abiadura Handiko Trenari ezetza ematen diogu, eta proiektu honen inguruko zundaketa eta bestelako lanak eragozteka eskatzen diogu orain arte proiektu honen alde azaldu den gure alkate Fidel Azpiroz jaunari, gure biziraupena jokoan baitago.

Proiektu honi aurre egiteko anoetar guztien babesa beharrezkoa da eta, beraz, herritar

guztiak animatu nahi ditugu proiektu hau gelditu eta honen inguruan eztabaida eman dadin egiten ari den sinadura bilketan firmatzera. Bestalde, gogorazazi nahi dizuegu gaur, 10etan, festa alternatiboan baitan II. Herriko baserritar eta artisau azoka antolatu dugula; iaz baino postu, ganadu eta hegazti gehiagorekin eta lehen baserrietan erabiltzen ziren lanabes zaharren erakusketa txiki batekin. Beraz, herritar guztiak animatu nahi zaituztegu erakusketa eta ganadua ikusiz gure produktuak erostera eta inposatzen diguten garapen ereduari ezetza ematera.

ANOETAKO BASERRITARROK ▶ ANOETA

AZOKA ▶

Alaia eta eguzkitsua izan zen atzoko azoka

Leka ugari ikusi ahal izan ziren; besteak beste, baba eta ilarren eskari handia izan zen

PABLO ALBERDI

Eguzkia lagun izan zen atzo goiz osoan zehar. Nabarmen-tzekoa da temperatura gozokak kalera ateratzera lagundu zuela, baita giroa alaitzea ere. Produktu eskaintza oso zabala izan zen. Lekak postu askotan izan ziren sagai, eta baba eta ilarren eskari handia izan zen. Perretxiko postuetan zizak, ziza horiak eta ondoak izan ziren. Prezioetan ez zen aldaketa nabarmenik izan. Dirudienez, zizen eskaintza agortzen hasiko da pixkanaka, eta onddoen kopurua gehitu.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Onddoak	20	-
Ziza	10	20
Ziza horia	20	-
Arkumea	3	3,2
Indoiolarra	4,3	-
Ilarra	5	8
Irasagarra	3	-

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3
Inbaurra	4	6
Hurra	4	6
Patata	1,52	-
Arroza	1,9	-

TOLOSA ▶ PRESOKAK

Esteban Nieto sakabanaketak hil duela salatu dute senideek

Etixerat-ekin batera eman zuten atzo prentsaurrekoa Tanatorioaren atarian

DANI GIBELALDE

«Sakabanaketa politikak» Leo Esteban Nieto hil duela salatu zuten atzo haren senitartekoei eta Etixerat-eko ordezkariak Tolosako tanatorioan eman zuten prentsaurrekoan. Jendetza handia bildu zen bertan senitartekoei doluminak emateko. Gaur Larraitzen barreiatuko dituzte Esteban Nietoren errautsak, 12:00etan.

Lehenik, Esteban Nietoren arreba Uxuek hartu zuen hitza. «Sakabanaketa indarrean jarri zenetik hasi zen Leoren kalbarioa». 1989ko apirilean Leok haren anai Esteban Puerto de Santa Maria espetxean ikustetik zetorrela, Jaengo Andujarren (Espainia) senideen autok izandako istripu larriaren ondok hanka bat ebaki behar izan zioten. «Hanka ez zitzaion inoiz erabat sendatu; hogeita bat ebakuntza jasan zituen, eta ia denbora guztian minez egon da, sendagaiak hartu arren. Aldakak mindu zitzaizkion; lehenik batean egin zioten ebakuntza, eta gero bestean. Zorte txarra izan zuen, hematoma txiki bat geratu zitzaion, handitzen joan zitzaion, eta Inauterietan min handiarekin egon zen. Gibelala ahulduta zuen, eta hemorragia ez zitzaion ixten. Pixkanaka okerrera zihoan, eta ohetik mugitu gabe geratu zen. Astebete da sendagileek ezer egiterik ez zegoela esan zigula.

Erabat aldatu zitzaion bizitza duela 15 urte, istripuarekin: kirrolaria, langilea, borrokalaria eta alaia zen. Kartzela politikak du gertatutakoaren errua».

Senideak erabat «babesik gabek» sentitzen direla gaineratu zuen Uxuek, hunkituta. «Presoen senitartekoak existitzen ez garela dirudi, ez dugu besteek duten babesik. Errepresioa jasan ez ezik, zigortuta eta kriminalizatuta ere bagaude, baita presoek laguntzeko edozein ekitaldi egiteko ere. Zein amak ez dio semeari lagunduko?».

Etixerat-eko ordezkari Imanol Haramburuk Leo Esteban Nietoren heriotzaren ardurdun jo zituen PSOE eta PP alderdiak. «Ez horiek bakarrik; ezikusiarekin eta mututasunarekin egoera hau bultzatzen duten konplize koldarrak ere badira. Ajuria Eneako txontxongiloa gaur ez da espantuko plazaratuko, euskal herritarren eskubideak urratzen diren bitartean nahiago baitu mutu egon, Madrileko agintarien aurrean morroi azaltzen den bitartean». Atzokoa haienztzat «dolu eguna» zela erantsi zuen; sarriagotan izaten dituztela horrelakoak, baina ezin dela egoera horietara ohitu.

Gogoetarako deia luzatu zieten Euskal Herriko eragileei, «jada 67 lagun baitira sakabanaketak eragindako istripuak jasan dituztenak eta 15 politikak horrek hildakoak».



Senitartekoak eta Etixerat-eko ordezkariak, agerraldian. D. GIBELALDE



PILOTA PARTIDUAK

aspepelota.com

Nagore - Zubieta
Chafee - Apeztegia
Capellan - Barriola
Gonzalez - Goñi III
Berraondo - Eulate
Baleztena - Galarza VI

Tolosako Beotibar pilotalekuan
Ekainak 7 astelehena
arratsaldeko 16:30ean

ANOETA ▶ JAIK

Eguraldiak lagunduta, festa lehertu eta jendetza bildu da

Besteak beste, azoka, erakusketa, txistulariak, Xibaren Euskal Herriko Herrien arteko I. Topaketa, erromeria, dantzariak, eta musikariak izango dira gaur

DANI GIBELALDE

Jende ugari bildu zen atzo Anoetako jaien lehen egunean. Goizetik hasita, makina bat ekitaldirekin gozatu zuten herritarrek. Eguraldi onak zeresana izan zuen horretan.

Jai alternatiboei dagokienez, bikaina izan zen herriko hiru bikoteren arteko sega apustua. Jende asko hurbildu zen Argindegi atzeko zelaira lehia ikusteko, eta giro ona nagusitu zen. Bikote bakoitzak zorrotzailea, belar biltzaileak eta epaileak izan zituen. Hiru bikoteak ordu erdiz aritu ziren. Era berean, Ibon Artolak eta Anjel Mari Peñagarikanok bertso saioa eskaini zuten. Azkenean, Joakin Garmendia eta Igor Urkola nagusitu ziren (1.305 kilo); Aitzol Esnaola eta Egoitz Luisa bigarren (1.172 kilo); Txomin Garmendia eta Igor Urkola izan ziren hirugarrenak (1.144 kilo). Denek lan bikaina egin eta zaltetuen txaloak jaso zituzten.

Gaur herriko baserritarren, artisauen eta artisten azoka eta lanabes zaharren erakusketa izango da; ondoren, Xiba taldearen Euskal Herriko herri kirol txapelketa eta iluntzean trikitilariak izango dira.

Egitarau ofizialari dagokionez, VII. Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren atzo. Goiz nahiz arratsaldean, herriko artisten erakusketa eta Basagaingo burdin aroko herrixkari buruzko erakusketa izan ziren udaletxean. Orain dela 2.500 urte inguru, giza talde bat kokatu zen Basagain mendialdean. Oria bailarako kaskoetan. Giza talde hark barruti bat harresiz itxi eta harresiz barrura herrixka bat eraiki zuen, egur



Sega apustuan aritutako lehiakide, zorrotzatzaile, belar biltzaile eta epaileak, atzo. DANI GIBELALDE



Basagain burdin aroko herrixkari buruzko erakusketa ikusgai izan zean atzo udaletxean. D. GIBELALDE

eta buztinezko etxeekin. Abeltzantzan eta nekazaritzan aritzen ziren, eta burdina erabiltzen zuten estreinakoz laborantzarako tresnak eta beste-lako erremintak egiteko. Orduko bizimodua gogora ekarri eta agertu nahi izan dute Basa-

gaingo erakusketa horrekin. Era berean, arratsaldean, Oiarzabal eta Urkolaren oroimenezko txirindulari lasterketa jokatu zen.

Gaurkoan, besteak beste, Mikel Garciaren oroimenezko proba jokatu da. Arratsalde-

an, Villabonako, Zizurkilgo, Alegiako, Beasaingo, Irurako eta Anoetako dantza taldeen emanaldia izango da herriko plazan, eta ondoren merienda. 19:30ean, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua izango da plazan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxis: 67 04 20
 ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 67 01 28.
 Larraia M. I. Elbarren, 95 (Leitza). 112.
Bihar. Bronte C. Korreo kalea 20, (Tolosa). 943 67 60 13.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ESKERTZA ▶
LEO ESTEBAN NIETO jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten guztioi. Gaur, 12:00etan emango zaio azken agurra Larraitzen.
 Tolosa, 2004ko ekainaren 6a

IRURAN
 ETXEZARRETA KALEAN
GARAJEA SALGAI EDO ALOKAIRUAN
mug. 680 240 805

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitze eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

OTEGI
 eraikuntzak, s.l.
 Bizkai kalea, 2 - beheka
 20400 TOLOSA
 Faxa: 943 69 71 98
 Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Taberna. Orexako taberna alokatzen da. 943 68 20 29.

SALGAI

Zakurkumeak. Setter arrazako zakurkumeak salgai 200 eurotan. 943 67 45 56.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



Gineako Errepublikako jantziak soinean, bertako ebafoa prestatu zuten jendeak dastatzeko. ©.ESKIXABEL

Zapore, jolas eta erritmo kulturalitzak

Askotariko kulturetako platerak prestatu zituzten Irazki elkarteko kideek Kultur Etxean egin zuten dastaketarako

OLAIA ESKIXABEL

Irazki elkarte kulturalitzaren lehen urteurrena dela eta, ekitaldi ugari burutu dituzte astean zehar: hitzaldiak, ikusentzunezkoak... Atzo ere ospakizun ekitaldiak egin zituzten, goizean, dastatze gastronomiko kulturalitza egin zuten Kultur Etxean. Munduko herrialde desberdinetako zaporeak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Ebafoa (Gineako Errepublika), cus-cusa (Sahara), tea

Maroko), Pozolea (Mexiko), Errepublika Dominikarreko ogi budinga, Ekuadorreko cevichea, Kubako rona... prestatu zituzten Irazkiko taldekideek. Hamabost postu inguru jarri zituzten; prestatutako plateren jatorria karteltxoekin azaltzeaz gain, mahai bakoitzak zegokion herrialdeko bandera zuen ondoan.

Askotariko erritmoek eta doinuek alaitu zuten dastaketa. Gerturatu zirenek gustura probatu zituzten zapore berriak bi euroren truke. Euskal Herriari

zegokion mahaian sagardoa eta gazta zegoen dastagai ohiko produktuetarako joera zutenentzat.

Dastaketan zehar errifak saldu zituzten, Mexikoko Bizitzaren arbola (zeramikaz eginiko apaingarria) eta margolan bat zirelako jokoan. Dirua, «taldekide bati laguntzeko» erabiliko dutela azaldu zuten elkarteko kideek. Zerbaki saritua gauean ateratzeko asmoa zuten; horren berri hurrengo egunetan emango dute.

Jai giroa Plaza Berrian

Arratsaldean eta gauean, Plaza Berrian kokatu zen festa. Haur jolasak 17:00etan hasi ziren; bertan adin desberdineko haur eta gaztetxo ugari bildu ziren. Begiraleen azalpenez lagunduta joku berriak ezagutu zituzten: baltsa-gidariaren jolasa, Rayuela... Kioskoan zintzilikatutako piñatak hautsi eta barruan gordeta zeuden gozokiak eta jostailu txikiak estropozuka jaso zituzten, amaitzeko. Egunari amaiera emateko, Irason taldearen emanaldia izan zen; beroari aurre egiteko mojitoa, rona, piskoa... eskaini zituzten antolatzaileek, halaber.

Gaur, bazkaria egingo dute Eskolapioetan. 14:00etarako egin dute hitzordua, eta gisa horretara emango diete urteurrenreko ekitaldiei bukaera.



Besteak beste, lurrean margotutako txingoan jolastu zuten . HITZA

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoa

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailek gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefona:
astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 6a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Alegia, Aletza, Alzo, Ametsketa, Anoeta, Balaran, Berasteg, Edoain, Hernalde, Iñaki, Ina, Larnai, Leizaburu, Lizarza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzera

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46



Jon del Rio bigarren, goizeko saioan

BIDEGOIAN ▶ Goiatzeko plaza txirindulariz josita ageri zen atzo, irteera hartu aurretik sinadura eman behar baitzuten bertan Euskal Bizikletako partehartzaileek. Autoak, motorrak, kazetariak, txirindulariak, ikusleak... denak nahastuta aurkitzen ziren irteera puntuan. Irteteko ordua gerturatu ahala, bakoitza bere zereginetan kokatu zen. Ugarteko alkateak, Juan Ugartek, eta Julian Erasok, Euskal Bizikletako lehendakariak zinta moztu ondoren, zapi gorria altxatzearekin batera irten ziren txirindulariak Abadiño aldera. Irabazlea, Konyshv izan zen eta bigarren postuan Jon del Rio tolosarra sailkatu zen; etxe inguruan izan eta bertatik abiatzeko indarra eman zion, nonbait. Arratsaldean, erlojupekoa egin zuten. OLAIA ESKITXABEL

ZORION AGURRAK



URTE ASKOAN
 Aitor Gurrutxaga (Tolosa).
 Bihar 5 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Garbiñe Aranburu.
 LAB sindikatuko lagunak.



URTE ASKOAN
 Odei (Tolosa).
 Bihar 3 urte. Zorionak eta muxuak ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
 Kris Vazquez (Tolosa). Gaur 35 urte.
 Zure urteak direla eta ondo pasako duzulaokan, muxu handi bat familaioek.



URTE ASKOAN
 Arlette Jauregi Garaialde (Tolosa). Bihar 14 urte.
 Egun ona pasa dezazula. Aitarene eta amarene partetik.



URTE ASKOAN
 Haizea Iraola Otegi (Asteasu).
 Bihar 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Aita, ama eta Hodei.

HITZA,
 zorion agurren tartea
 Mesedez,
 ekarri argazkia bi egun
 lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5
 behea - Tolosa)

URTE ASKOAN
 Zorionak MISTER.
 Zure fans-en partetik.

AGENDA

DEIALDIAK

Alegia. Franconi Haur Eskola!
 lelopean, kontzentrazioa
 11:30ean udaletxe aurrean.

Alegia. San Juan kalearen
 inguruko bilera. Bihar,
 20:30ean, udaletxean.

Leitza. Belate-Leitza ibaldia.
 08:00etan plazatik, Mendibil
 mendi taldearen eskutik.

Lizartza. Ina Zeberioaren
 omenez, 09:00etan mendi
 irteera Axurdariora eta
 13:00etan omenaldia
 monolitoaren aurrean.
 Txalapartariak, bertsolariak,
 dantzariak eta hizlaria: Arnaldo
 Otegi mintzatuko da bertan.

Tolosa. Bazkari kulturanziduna,
 Eskolapioen ikastetxean,
 14:00etan, Irazkik antolatuta.

Tolosa. Leo Esteban Nietori
 azken agurra eta omenaldia,
 12:00etan Larraitzen.

Tolosa. Zerkausari buruz
 Udalak egindako inkestaren
 emaitzen eta aurrera begirako
 urratsen berri emateko bilera
 irekia. Bihar, 20:00etan
 Udaleko udalbatzar aretoan.

antolatutako Euskal Herriko
 Herrien arteko I. Topaketa;
 17:00etan Villabona, Zuzurki,
 Alegia, Beasain, Irura eta
 Anoetako dantza taldeen
 emanaldia herriko plazan eta
 ondoren askaria eta 19:30ean
 Loatzo musika eskolako
 ikasleen kontzertua plazan.
 ▶ Jai alternatiboak: 10:00etan
 herriko baserritarren, artisauen
 eta artisten azoka eta lanabes
 zaharren erakusketa herriko
 trikitilarietara; 11:00etan Xibak
 antolatutako Euskal Herriko
 kirol txapelketa eta 20:00etan
 erromeria Beñat eta Lierni
 trikitilarietara.

TOLOSA KUP

Gaur.

- ▶ 13:00: Lekukik-Amaroz.
- ▶ 13:45: Ioniko-Azkar.
- ▶ 14:30: Hawai-Izarpe.
- ▶ 15:15: Lauetan pix-Bonbero.
- ▶ 16:00: Ordago-Iñaki Falkon.
- ▶ 16:45: Mattin Gaizt-Txanpa.
- ▶ 17:30: Eguzki-Ekakit.
- ▶ 18:15: A ke no-Elorri.
- ▶ 19:00: Begi gorri-Garikoitz.
- ▶ 19:45: Wasper-Txiki taberna.
- ▶ 20:30: Kupelzaleak-Gorro team.
- ▶ 21:15: Recreativo de Juerga-Azkar.

JAIK

Anoeta.

▶ Egitarau ofiziala: Dantziari
 Txiki Eguna. 10:30ean Mikel
 Garciairen oroimenezko Herri
 Krosa; 11:00etan txistularien
 kalejira eta Xiba taldeak

ZINEMA

Tolosa. *El castigador* filma.
 17:00etan, 19:30ean eta
 22:30ean, Leidorren.

DENDA HAUEN
 Tolosaldeko HITZAren
 LAGUNTZAILEAK DIRA
 Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ilepaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezia
- Factory
- Elite Kiroiak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kiroiak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815 Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Eloa Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Ertzajotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Aretxe Mertzleria
- Ugarte Bitxindenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN
%5*-eko
 BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.
 (Martxoetik ekainera)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharpenegi gehituko.
 Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.